

Asteartea, 2012/03/13

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

## AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data  
2012  
martxo  
12

## BILATU

Kronika Zaharrak

## ARGITARATZAILEA



## LAGUNTZAILEAK



## KRONIKA.NET



### ASTIGARRAGAKO SAGARDOETXEA

## Gastronomia eta kultura bat eginik, igandera bitartean

**Sagardogintzari buruzko artelanak ikusgai egongo dira, eta produktu gastronomikoak dastatzeko aukera ere izango da; egunero, igandera arte.**

2011/12/09 - Ostirala

sagardoaren kultura zabaltzeko asmoz, Astigarragako Sagardoetxea esperientzia gastronomiko-kulturala ari da eskaintzen abenduko zubi osoan zehar. Hori bultzatzeko asmotan, batetik, erakusketa jarri dute sagardogintzaren inguruan egindako artelanekin; eta bestetik, barrikotea egiten dute egunero, gaztain eta sardina zaharrek lagunduta. Larunbatera bitartean, museoa goiz eta arratsalde egongo da zabalik: 11:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:30etara. Igandean berriz, goizez egongo da, 11:00etatik 13:30etara.

### Egurrezko tailak, argazkiak, bitxiak... guztiak sagardogintzari buruz

Eskualdeko artistek sagardogintzaren inguruan egindako artelanak dira Sagardoetxean ikusgai jarri dituztenak, igandera bitartean: egurrezko tailak, argazkiak, ilustrazioak, bitxiak, eskulturak... Ikusi nahi dutenek Sagardoetxera gerturatu besterik ez dute, sarrera doan baita.

### Muztio eta likoreez gain, barrikotea ere bai

Urtean zehar Sagardoetxean egiten dituzten bisita gidatuetan, muztioa eta likorea ematen die probatzeko bisitariari. Abenduko zubian ordea, sagardoaren uzta berriko barrikotea ere eskaintzen diete. Edateaz gain, tripa gaztain eta sardina zaharrekin betetzeko aukera ere izaten da. Guztia, 5 euroan.

Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

## BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

## BILATU

## GAURKO KRONIKA



## ARGAZKIAK



## IKUSI



VI. SAGAR  
LASTERRA -  
SAILKAPENA

AÑARBE -  
UHOLDEETAKO  
TXOSTENA

BEHOBIA-  
DONOSTIA  
Hernaniarren  
sailkapena